

Irene Kortaberria Larrea

A maila • Aipamena

Irene Kortaberria nauzue, 16 urteko beasaindarra. Beste urte batez nire izena topatu dut idazlan hauen artean, eta beste urte batez, benetako ohorea da.

Idaztea atsegin badut ere, nahiago dut irakurri, eta azken aldian film eta telesailera ere zaletu naiz. Etxetik milaka bizipen bizitzeko aukera ematen digu fikzioak!

Aurtengoa aldaketen urtea izan da niretzat, lehen urtea izan baita Txindoki institutuan, eta aldaketak ere egin nahi izan ditut nire kontakizunean. Aurtengoa gure tradizioak, maitasuna eta mendekua nahasten dituen istorioa da. Zuen gustokoa izatea espero dut.



SOLSTIZIOA

Zuhaitzek dena zekiten lurralde hartaz. Arbasoen historia, herrien heriotza, berpizte eta gerrak, gertatu zirenak eta gertatzekoak. Ondo zekien hura Iraiak. Urteetan haiek izan baitziren bere lagun, etxe eta konpainia bakarra. Urte luze haietan zehar haizearen ahotsa entzuten eta hodeiak eta izarrak irakurtzen ikasi zuen. Basoan ezkutatzeko ziren landareen eta izakien berezitasun guztiak ikasi zituen eta Amak oparitzen zituen erregalu txiki horietako bakoitza nola erabili gizon zaurituak sendatzeko eta emakumeak emankor bihurtzeko. Ama ezagutzen eta harekin komunikatuz igaro zituen egunak horrenbeste ziren, non baso hartako zuhaitz guztiak ukitze soilarekin ezagutzeko gai baitzen. Denbora bezain zahar, kostaldeko labarrak estaltzen zituzten, harik eta ertzero gerturatuz desagertzen zihoazen arte. Haien enbor zimurretan eutsiz jarraitzen zuen aurrera andre jakintsuak. Bere hanka zaharkituentzat luzez ibili ondoren, basoaren iluntasuna eta hezetasuna atzean utzi zuen eta gauean murgildu zen. Olatuen talkak gertu entzuten zituen, Jainkosa artega zegoen antza. Labarrerantz gerturatu zen, haizeak adats urdinak nahasten zizkiola. Ez zen gau oskarbia, baina ilargiak, distiratsu eta hipnotiko, kostaldea argizatzen zuen. Amildegian behera ezkutatzeko hondartzari so, mendeak iruditu arren, ia 50 negu lehenago gertatutako guztia oroitu zuen. Denboran atzera egin eta minaren benda askatu nahi izan zuen, mendekuak zauriak zabaltu eta usteldu egiten dituela ohartarazi. Dena oroitu eta hondartza hartan betiko geratu izana desiratu zuen.

Zeruan eskegita zeuden izar guztiak zenba zitzakeela iruditzen zitzaion Iraiari ekainak 24 hartan. Urduri zegoen, inoiz baino gehiago. Gero eta hurbilago ikusten zuen sua bezala, dantzan zituen barneak. Eta nahastuak, urrunean entzuten zituen olatuak bezain nahasiak. Bidegurutzera gerturatzen ari zen eta oraindik ez zekien zein bide hartu. Denboran zehar behin eta berriro libratzen den gerra: betebeharra ala nahia? Arrazoia ala sena?

Urduri zegoen guztietan bezala, eskua ilera eraman zuen, baina gau hartan amak apain-apain jarritako orrazkera ezin zaputuz zezakeen. Negarrez hasi zen txirikorda egiten zion bitartean, bere txikia bazihoan eta. Bere hatz fin eta zuriak azkar egin zuten lana, ia gaua josten zuten

orratzak ziruditen. Amaitzean eguerdian lagunekin bildutako San Juan lore, bitxilore, garo eta basoan aurkitutako marrubi txikiez eginiko lore koroa ipini zion buruan. Gainerako neskekin elkartzera zihoanean aitak gerturatzeko keinua egin zion eta orratz bat sabelean bezala sartzen zitzaizkion hitzak berriro errepikatu zituen:

- Badakin, ordua iristean gerturatu Otarrengana eta atera ezan su-ingurura dantzatzera. Onena dun.

Ezin izan zion erantzunik eman, eta oraindik korapiloa eztarrian, alde egin zuen. Hain iruditzen zitzaion ironikoa ezkon-dantzan tribuko neskak gazteak izatea senargaia dantzatzera ateratzen zutenak. Aukera hartarako inongo askatasunik izango balute! Elkarketa horiek aurrez familiak adostuak izaten ziren, eta gutxitan ezkongaien gustukoak. Aitaren esana bete eta kankailu harekin pasa beharko zuen bizitza osoa. Ez, aitaren aukera ez da bereak egingo zukeena, baina errekuak ez ziren izan nahikoa. Aitak gizon indartsua zela eta, bere ondoan ez zuela ezeren beharrik zioen, eta horrexek beldurtzen zuen Iraia. Egun berezietan egiten zituzten lehiaketetan ikusia zuen Otarren jenio txarra eta benetan izutzen zuen bere gorputz txikiarekin egin zezakeenak.

Korapiloa ezin askaturik hondartzara iritsi ziren azkenean, han zen tribu osoa. Otar, bere ama begi gozoez, aita bere "ez egin txorakeriarik" zion begirada horrekin eta Xabat. Suak dena bustitzen zuen, txilibituen musikaz dantzatzen zen, bere inguruan milaka itzal sortuz. Neskak, zuriz jantzirik suaren inguruan mugitzen hasi ziren, geldo, berotik urrunduz eta gerturatuz, hainbeste emakumek euren aurretik egin zuten bezala. Hainbeste begi arretatsu urteroko ezkon dantza ikusten eta Iraiak ezin zituen bereak Xabatengandik une batez ere kendu. Ez zuen uste hain gogorra egingo zitzaionik. Xabaten eta bere artekoak jolasak baino ez ziren, ondo zekiten biek epemuga zuela, denbora-pasa bat zen, garrantzirik gabea. Eta halere kasik gelditu zitzaion bihotza ilea ferekatuz "ez ezazu egin, mesedez" xuxurlatu zionean. Zergatik sorrarazten zion halako korapilo estua jolas soil batek? Pasako al zitzaion? Pasako zitzaion. Errutinan sartuko zen, tribuak begi-onez begiratuko zuen eta Otar maitatzen ikasiko zuen.

Musika aldatzearekin batera neskaketako bat korrutik askatu zen eta mutil bat su-ingurura dantzatzera atera zuen. Hala egin zuten gainerakoek, baita Iraiak ere. Gazte bien gorputzak suaren ingurura batzearekin batera hobeto sentitzen hasi zen, askeago, eta txirula olatu eta txinparten melodietara, bata bestearen begietan galduta dantzatu zuten suaren inguruan. Ikusleen harridura eta ahots ezagunen garrasiek ordea, dantza bukatu orduko, atmosfera hautsi zuten. Iraiak aitaren begirada sentitu ahal izan zuen harkaitz astun eta zorrotz bat bezala bere gainean. Dezepzioa. Zorabiatzen hasia zen, kiskaltzen zegoen eta inguruan gorroto hitzak besterik ez zituen entzuten "inoiz ez naute honela iraindu". Bat batean Xabatek eskutik heldu zuen eta nahasmenaren erdian korrika abiatu ziren herrixkatik gertu zegoen beste hondartza txiki baterantz Otarren begiradapean.

Hondartzara iristean, brisak ardura eta arazo guztiak hegan eraman izan balitu bezala, biluztu egin ziren eta Ilargiak ostertza laztantzen zuen bezala bien ortzi-mugak elkartu zituzten.

- Ez zenuen zuhur jokatu, eta ondo dakizu. Orain ondorioak jasan beharko dituzu, eta egia esan, zure familiaren erantzunak ez nau harritzen

- Zuk ere gaizki begiratuko nauzu orduan?

- Badakizu ezetz, nahita ere ezingo nuke. Alde batetik zu zoriontsu izateak asko pozten nau, ni neu ere ez dakit gai izango nintzatekeen Otar bezalako gizon batekin ezkontzeko, baina... oso egoera korapilatsuan jarri zara, eta baita zure sendia ere.

Onak esaten zizkionak ez ziren Iraiak buruan bueltaka ez zituen gaiak. Baina Ona bere lagun minena zen, eta ulertzen zuen zergatik azaltzen zizkion bere ardurak. Egiak besterik ez ziren. Otarren familia izen onekoa zen, eta ziur aski ez zuten ahaztuko iraina. Solstiziotik ama zen noizbehinka bisitatzen zuen bakarra. Hotz agertzen zitzaion gehienetan, baina ezinezkoa

egiten zitzaion bere alabarekiko lotura guztiak haustea, gainerakoek egin zuten antzera. Hala ere horrek guztiak garrantzirik ez zuela iruditzen zitzaion Xabaten beso artean lo hartzen zuenean. Onarentzat dena errazagoa izan zen. Bere familiak hasieratik nahi izan zuen ezkondu Luarrekin. Mutil ona zen eta lagunak irrikaz itxaron zuen ekainak 24.

Sareak konpontzen amaitu orduko bakoitza bere etxera itzuli zen, gizonak arrantzatik itzultzean afari beroa mahaian aurki zezaten. Iraiak arrantzaleak entzun zituen herrira iristen, baina gau hartan Xabat ez zen etxera itzuli. Gauda itzarrik eman zuen Iraiak, bere itzuleraren zain, alferrik. Zer edo zer gertatu zen, ez zegoen zalantzarik. Arduratuta, eguna urratzean, behe-lainoaren artetik Ona eta Luarren txabolara abiatu zen. Onak atea ireki zion eta lagunaren aurpegia ikustean zoritxarren bat gertatu zela ulertu zuen berak ere. Senar-emazteei Iraiari bezain arraroa iruditu zitzaion Xabaten desagertzea. Xabat eta biak ilundu baino lehen iritsi zirela esan zion Onaren senarrak, eta karramarroren bat edo beste harrapatzen utzi zuela arroketan. Bera etxera itzuli zela eta Xabat atzetik joango zelakoan omen zegoen.

Herria esnatzen hasia zela hondartzara joan ziren, baina Xabaten arrastorik ez.

Aste bat, besterik ez zen, baina Iraiak hogei urte zaharragoa zirudien. Apenas egin zuen lo eta orduak ematen zituen itsasoari begira Xabat halako batean itzuliko zelako esperantzaz.

Arrantzaleak egun bat gehiagoz herrira iritsi ziren, eta Iraia ohean zegoen etzanda begiak irekita, ateari begira. Bat-batean ireki zenean ia bihotzekoak eman zion, baina ez zen Xabat, Ona zen malkoak begietan.

Arrantzaleek bere senarra aurkitu zuten herritik ez oso urrun, harkaitz batzuetan. Ia herri osoa zegoen bildua gorpuaren inguruan. Iraiak pentsatu zuen aste hartan zehar istorioa horrela amaitu zitekeela, baina Xabaten gorpu zurbila zoruan ikusi zuenean, oraindik gelditzen zitzaion esperantza apur hori nola desagertzen zen ikusi zuen, sabelean handiagoa eta handiagoa zen zulo bat utziz, apurka-apurka jaten zuen zuloa. Xabat eskuen artean hartu zuen eta lepoan zuen zauri sakona ukitzean egun haietan presiopean gordetako malko eta garrasi guztiak askatu zituen. Une hartatik aurrera irudi bakarra izan zuen uneoro Iraiak buruan, Otarren gorpua lurrean usteltzen.

Euria goian behean, Iraia etxolatik atera zen eta gaueko izakia bailitzan baso ilunean desagertu zen. Zuhaitzak, erraldoiak bezala, adarrekin gauda laztantzen saiatzen ziren, baina zerua hain zegoen urrun eta ekaitza horren gertu. Santutegia ez zegoen herrixkatik oso urrun, baina magia batek ezkutatuko balu bezala, zaila zen aurkitzen, baldin eta benetan behar ez bazenuen. Andre jakintsua zen gizonen eta Ama Lurraren arteko bitartekaria, baina baita sendagilea eta iragarlea ere. Inork ez zuen oroitzen andre hura gazte izan zen garairik, baina ez zion axola. Harengana jotzen zuen herriak eskatzeko eta eskertzeko. Gau hartan Iraiak ere harengana jo zuen.

Zurezko etxola guztiz zegoen zaharkitua, edozein unetan behera etorriko zela zirudien. Argitzeko oraindik orduak falta ziren, baina andre jakintsua esna zegoelako seinale zen gorantz altxatzen zen kea. Atea bultzatu zuen eta etxolan sartu zen. Aspaldian ez zuen ikusi atsoa, baina ez zuen ikusten igarotako denboraren arrastorik harengana. Ilea zuria izango zuen, baina inork ez luke esango, lurra eta hauts geruza baten pean ezkututzen baitzen. Bere gorputzeko zimur bakoitzaren atzean zeuden istorioak irudikatu nahi izan zituen Iraiak, baina ezin, emakume hura misterio bat egiten zitzaion goitik behera. Azala tatuaje gorri eta horiz zuen estalita, larruz jantzia eta lepotik behera ale beltzez eta letaginez osaturiko lepokoa. Basati baten itxuraren azpian zeru, lur, su eta uraren sekretu guztiak inork baino hobe ezagutzen zituen emakumea zen hura, benetan ahaltsua.

Ohartua zen bere presentziaz eta eskuartearen zerabiltzan belarrekin egitekoa bukatu orduko bira eman eta aurpegian ondoratutako begitxoekin begiratu zuen Iraia.

- Ondo dakit zure senarra Amarengana itzuli dela, baina argi dago ez zatozela berekin hitz egiteko. Ez gauaren erdian.

- Jainkosari eskaera bat egitera nator – erantzun zion irmo Iraiak – nire senarraren hiltzaileari bizia kentzea eskatzen diot.

Ez zen eskaera arrunta. Iraiak ez zuen uste andreak lagunduko zionik, baina beti zioen ama errukiorra eta justua zela. Hala bazen, Iraiak Jainkosaren errukia nahi zuen berarentzat eta justizia bizia kendu zionarentzat. Andreak jaramonik egin ez balio bezala begiratzen jarraitu zuen. Azkenean hitz egin zuen:

- Gizon bati bizia ostea ez da inongo txantxa.

- Hark bi ostu ditu ba. Nire senarrarena eta nirea. Ez al du amak nirekiko errukirik?

Andre jakintsua isilik geratu zen. Neskak ez zuen inongo zalantzarik, eta berak lagundu ezean bere kabuz egingo zuelako susmoa zuen. Orduan bai izango zirela hiru bizi zentzugabe galduak. Azkenean tratua proposatu zion.

- Ongi da, baina ez pentsa bizi baten prezioa merkea denik – esan zuen okertutako irribarre bat aurpegian marrazten zitzaion bitartean - Bizia biziagatik. Amak bizi bat kenduko du baina zuk zeurea eskainiko diozu zure azken eguna iritsi arte, eta berriz berarekin bat egin arte. Hala, ni ez nagoenean zuk jarraituko duzu gure herriaren ezagutzak gordetzen.

Andre hura bezala irudikatu zuen bere burua une batez, eta atzera egiteko gogoia izan zuen Iraiak. Xabaten gorpuaren irudiak bere pentsamenduaren zirrikitu bakoitza hartu zuen berriro, eta jarraian zizareek pixkana jaten zuten Otarrena. Baiezkoa eman zion.

Gau hartan, loak hartu baino lehen, andre jakintsua ontzi batean belarrak nahasten ikusi zuen, eta danbor hotsez lagundua ulertezinak egin zitzaizkion hitzak abestu zituen. Lau haizeetara barreiatu ziren, zeru lur eta itsasoek aditu zuten kantua. Egina zegoen.

Eguzkia goian zen Iraia esnatu zenean. Atsoa ez zegoen etxolan. Denbora galdu gabe, bera ere atera egin zen herrixkara itzultzeko, bere eskaeraren erantzuna ikustera, eta gaueko mamu eta itzalak isiltzera. Hostoetatik erortzen ziren tanten erritmora, biziberritua zirudien baso berde eta emankorra zeharkatuz Iraia herrixkara iritsi zen.

Jendearen ahots eta negarrak adituz mugitu zen hutsik zegoela zirudien herrixkan barna. Mendekua dastatzeko irrikaz iritsi zen Iraia tribu guztia bildua zegoen tokira. Negarrak ozen aditzen ziren. Solstiziokoen antza zuten, baina garratzak ziren hauek. Gorpu bat zegoen zuhaitz batetik zintzilik. Aitaren gorpua.